



AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA,
EUSKADIKO MERKATARI-ELKARTEEN ERREGISTROA SORTZEKO DEKRETU-
PROIEKTUAREN AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO DENA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak xedapen orokor bat egingo du, Euskadiko Merkatarari Elkarteen Erregistroa sortzeko. Elkarre horrek Euskadiko Merkatarari Elkarteen Errolda ordeztuko du, zeina ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuak arautu baitzuen (dekretu hori urriaren 6ko 184/2015 Dekretuak aldatu zuen).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezartzen denaren arabera, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Aurretiazko kontsulta hori xedapen orokorra prestatzeko fasean sartzen da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, arau-xedapen orokor baten proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da, jasoko duena zein den honako alderdi hauei buruzko iritzia:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Horregatik, hogeit egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta beren entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten. Araua landu aurretik egingo da hori, aipatu 6/2022 Legearen 11. artikuluan araututako hasiera-fasearen barruan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Euskadiko Merkataritza Elkarteen Erregistroa sortzeari buruzko xedapen orokor baten proiektuaren kontsulta publikoa egitea, xedapena landu baino lehen.

Bigarrena.- Arauak eragindako herritarrek eta entitate zein erakundeek, hala nahi badute, Agindu honen eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia helaraz dezakete hogeitaz egun balioduneko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.- Agindu honen Eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia eman ahal izateko behar den informazioarekin.

Sin. JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

ERANSKINA

1. Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Dekretu-proiektu honen helburua eta xedea Euskadiko Merkataritza Elkarteen Erregistroa sortzea da.

2. Araua onartzea beharrezkoa eta egokia den.

Gobernu Kontseiluak 2023ko irailean onartu zuen 2030eko Turismo eta Merkataritza Estrategia. Estrategia horren gako estrategikoetako bat da esparru juridiko eguneratu bat sortzea (legea, dekretuak, erregelamenduak...), egungo errealitate sektoriala eta sozioekonomikoa jasoko duena eta hari erantzungo diona, eta hartara, sektorearen antolamendu eta egituraketa egokia bultzatuko duena. Era berean, ildo estrategikoetako bat merkataritza-sektorearen gobernantza da, non beharrezkoa den lankidetzaren publiko-pribatua nabarmentzen baita.

3. Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Euskadiko Merkataritza Elkarteen Erregistroa sortzeko dekretu-proiektu honen helburua da gaur egun indarrean dagoen Merkataritza Elkarteen Errolda —1998an arautua eta gabezia nabarmenak dituen— ordeztzea. Horrela, informazio eguneratua eta egiazkoa izango dugu eskura, oinarri izango dena honako hauek lortzeko: batetik, adierazle objektiboak, ahalbidetuko dutenak merkataritza-asoziazionismoa sustatzeko politika bat egitea, haren errealitatera egokituta, eta, bestetik, lankidetzaren publiko-pribatu ezin hobe bat.

4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Aurreko apartatuetan azaldutako zirkunstantziak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.